



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0002

Idiazabalen, bi mila eta hogeiko urtarrilaren hogeita batean.

ELKARTUTA

Alde batetik, **IÑAKI ALBERDI IPARRAGIRRE** jauna, Idiazabalgo Udaleko Alkate udalburua Bestetik, **MATIAS ARANBURU ELORZA** jauna, 72.426.689-B NAN zenbakiduna, Idiazabalgo udalerriko Iparra kalea 11n, 1. solairuan (ezk) helbideratua, «IDIAZABAL KIROL ELKARTEA»ren izenean eta ordezkari duena.

ARI DIRA

IÑAKI ALBERDI IPARRAGIRRE jauna, Idiazabalgo Udalaren izenean, dokumentu hau sinatzeko berariaz baimenduta.

MATIAS ARANBURU ELORZA jauna, «IDIAZABAL KIROL ELKARTEA»ren izenean eta ordezkari duena - IFZ: G-20306049 zenbakiduna eta Idiazabalgo udalerriko Plaza Nagusian (z/g) helbideratua.

Parte-hartzaileek agiri hau sinatzeko behar den lege gaitasuna aitortzen diote elkarri eta hala, hau

ADIERAZTEN DUTE

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikulua xedatutakoaren arabera, Udal eskumen propioa da: "19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea".

14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, Euskadiko kirolarenak, 6. artikuluan, udal eskumenak arautzen ditu.

Idiazabalgo Udalbatzak, 2018ko abenduaren 18an egindako ezohiko bileran, gehiengoz, erabaki du 2019ko Aurrekontua hasieraz onartzea; Alkate udalburuak, 2019ko urtarrilaren 9an sinatutako 01/2019 Dekretu bidez, ebatzi du Idiazabalgo Udaleko Diru laguntzen Plan Estrategikoa onartzea. Plan estrategikoa honetan 53.100€ko diru-laguntza kopurua zehaztu zen.

Ondoren, 2019ko maiatzaren 23ko 236/2019 Dekretu bidez onartu du 03/2019 kreditu aldaketa onartzea (gehiarrien modalitatea) eta maiatzaren 27ko 241/2019 Alkatetza Dekretu bidez ebatzi du Plan Estrategikoa aldatzea, eta Kirol Elkarteari 8.000€ gehiago ematea aurreikusten da.

Horren l. eranskinean, hitzez hitz, honako hau xedatuta dago:

11/2020

11/2020

1. Organo emailea: Idiazabalgo Udala (Kultura Saila).
2. Zenbateko: 53.100€
3. Finantza Iturria: Udala.
4. Kontu izendapena: 1.481.00.341.00
5. Kudeaketa mota: Hitzarmena.
6. Araudia: Idiazabalgo Udalaren eta Idiazabalgo Kirol elkartearen arteko hitzarmena, kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko.
7. Lortu nahi diren helburuak eta ondorioak:
 - a) Kirol jarduerak antolatzea.

1. Concedente: Ayuntamiento de Idiazabal (Dpto. Cultura).
2. Importe: 53.100€
3. Fuente de financiación: Municipal.
4. Cuenta presupuestaria: 1.481.00.341.00
5. Modalidad de gestión: Convenio.
6. Normativa: Convenio entre el Ayuntamiento de Idiazabal y Kirol Elkarte de Idiazabal, para la promoción del deporte y la actividad física.
7. Los objetivos y efectos que se pretenden alcanzar:
 - a) Organización de actividades deportivas.



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0002

- | | |
|-----------------------------------------------------|------------------------------------------------------------|
| b) Kirol lehiaketetan esku hartzea. | b) Participación en competiciones deportivas. |
| c) Udal kirol eskoletan lankidetzeta. | c) Colaboración en las escuelas deportivas municipales. |
| d) Udal interesa duten kirol ekitaldiak antolatzea. | d) Organización de eventos deportivos de interés municipal |
8. Onuraduna: Idiazabalgo kirol elkarteak.
9. Epea: 2020.
8. Beneficiario/a: Kirol elkarteak de Idiazabal.
9. Plazo: 2020.

Kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizarteak ondo izateko lagungarria. Pertsona guztien funtsezko eskubidea da kirola eta eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatu behar du Idiazabalgo Udalak. Horretarako, agintaldiko planifikazio estrategikoak eta aurtengo planifikazio operatiboak printzipio hauek izango ditu oinarriak.

- a. Bertako kirol elkarteak sustatzea, bideratzea eta sendotzea.
- b. Lankidetzeta arduratua izatea kirol arloan herri-administrazioen artean eta herri-administrazioen eta kirol- federazioen eta/edo beste edozein kirol-erakunderen artean sartzeta erraztuko duten egokierak sustatzea.
- c. Kirol-jarduera gizarte-maila guztietara, batez ere ahulenetara, zabaltzeko programa bereziak onartzea eta burutzea.
- d. Kirol-jardueretan naturaz modu egokian baliatzea bultzatzea, ingurugiroaren babesarekin bateragarria izan dadin.
- e. Kirol-instalazioen ahalik eta sarerik onena planifikatzea eta sustatzea.
- f. Kirola aisialdi-aukera eta osasun-ohitura modura sustatzea, helburu hori lortzeko egokiak diren kirol ekintzak sustatuz.
- g. Oinarrizko kirola, batez ere eskola-kirola, bideratzea eta sustatzea.
- h. Euskal kirolari laguntzea Estatuan nahiz atzerrian.
- i. Euskal Herriko kirol-motak babestea eta sustatzea.
- j. Kirola kultur osagaitzat eta gizarte-bateratzailatzat aitortzea.
- k. Ideario olinpikoa onartzea eta babestea, eta dopatzea eta osasunaren nahiz pertsonaren duintasunaren aurkako beste edozein jokabide kirolek erazteko neurriak hartzea.
- l. Euskal kirola bultzatzea
- m. Genero berdintasuna sustatzeko neurri positiboak diseinatzea eta garatzea.

«IDIAZABAL KIROL ELKARTEA» Idiazabalen dagoen kirol elkarte nagusia eta kirolari gehien mugitzen duena da. Bere baitan hainbat saila ditu: futbol saila, areto futbol saila, euskal pilota saila, atletismo saila, bolo saila eta xake saila.

Idiazabalgo herritarrentzako kirol aukerak bermatuak izan daitezzen Idiazabalgo Udalak egokitzen du «IDIAZABAL KIROL ELKARTEA»ri diru laguntza izenduna eta zuzena ematea, baita instalakuntzen erabilera-zerga ordaintzetik salbuetsita uztea ere (2020. urteko Zerga- eta Prezio Publikoen Ordenantzek hala jasotzen dute).



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0002

Erabiliko diren instalakuntzak, zerga-tasa ordaindu gabe, Arizkorretako Futbol Zelaia, Zelaako kiroldegia eta Igarondo Pilotalekua dira. Nolanahi ere den, kirol instalakuntzen erabilera pribatiboaren lagapena beste hitzarmen batean arautu beharko da.

Hori dela eta, bi aldek ituntzen dute:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmen honen bitartez arautzen da zein baldintzatan emango dion diru laguntza Idiazabalgo Udalak «**IDIAZABAL KIROL ELKARTEA**»ri xede hauetarako:

- «**IDIAZABAL KIROL ELKARTEA**» indartzea, herritarrek dituzten kirol aukerak eta eskubidea bermatzeko.
- Elkartearen ekintzetan genero berdintasuna, gazteek eta adineko pertsonen parte hartzea, aukera-berdintasuna bultzatzea.
- Kirol jarduerak antolatzea eta kirol ekimenak bere ekimenez edota Udalarekin elkarlanean diseinatzea eta garatzea.
- Lehiaketa-kirola udalerrian sustatzea.
- Futbol eskola udalerrian sustatzea.
- Eskola kirolarekin koordinatzea.
- Udal interesa duten kirol ekitaldiak antolatzea.
- Beste erakunde eta taldeekin (eskolak, elkarteak, kirol taldeak...) elkarlanean aritzea.
- Udalak antolatutako edozein ekintzatan laguntzea, Udalak hala eskatzen duenean.
- Kirol lehiaketetan esku hartzea
- Udal kirol eskoletan lankidetzatza
- Udal interesa duten kirol ekimenak antolatzea eta garatzea; besteak beste:

a) Lehiaketa-kiroleko modalitate ezberdineko entrenamendu saioak eta partiduak antolatzea; nesken eta mutil seniorren areto futbolaren denboraldia, futbolaren maila guztietako denboraldia, xake txapelketa, bolo txapelketa...

b) Erakunde pribatuen babesarekin honako mendi lasterketa hau: AXARI TRAIL mendiko lasterketa-Mikel Garmendia memoria. Euskal Mendizale Federazioak sartu ohi du lasterketa hori, proba ofizial bezala, mendiko lasterketen Euskal Herriko Koparen txapelketan.

- Herriko Futbol Eskolako eta Pilota Eskolako entrenamendu saioak eta partiduak antolatzea.
- Kirol ekitaldi edota txapelketak antolatzea San Blas jaietan, San Adrian egunean, Kirol Astean eta bestelako egun berezietan, nagusiki, San Blas jaietako krossa.
- Guztiontzako kiroleko ekimenak antolatzea eta garatzea, bereziki, mendi ibilaldiak.
- Kirolari buruzko hitzaldiak, ikastaroak...
- Denboraldien amaierako ekitaldi ludikoak (puzgarriak eta abar)
- Beste erakunde eta taldeekin (eskolak, elkarteak, kirol taldeak...) elkarlanean aritzea.



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0002

– -Udalak antolatutako edozein ekintzatan laguntzea, Udalak hala eskatzen duenean.

Jarduketa horien aurreikusitako zenbatekoa 53.100,00 eurokoa da, sailka horrela banatuta:

- Futbola saila 32.250€
- Areto Futbola saila 2.800€
- AXARI TRAIL mendiko lasterketa-Mikel Garmendia memoria: 3.500€
- Herri Krosa 4.000€
- Txirrindulariak: 6.000€ -
- Pilota eskola 2.900€
- Mendi Saila: 650€
- Boloak 600€
- Xake: 400€

«**IDIAZABAL KIROL ELKARTEA**»k Zelaako kiroldegia, Arizkorreta Futbola Zelaia, Igarondo Pilotalekua erabiliko ditu, erabilera-zerga orokorra ordaintzetik salbuetsita.

Elkartek instalakuntzak garbituko ditu ekitaldiak egin ondoren eta egoera onean utziko ditu.

Bigarrena. Horretarako, Idiazabalgo Udalak BERROGEITA HAMAIRU MILA ETA EHUN EURO (53.100,00) euro jarriko ditu aurrekontuko 1.481.00.341.00.2020 "Transf. Arruntak. «IDIAZABAL KIROL ELKARTEA» kontu izendapenaren kargura.

Diru laguntza bateragarria da helburu bereko beste edozein subentzio, laguntza, sarrera edo baliabiderekin. Diru laguntzaren guztizkoak inoiz ez du jarduera diruz lagunduen kostua gaitzizko, ez banaka ez beste subentzio laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera.

Hirugarrena. «**IDIAZABAL KIROL ELKARTEA**»k egiaztatu du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorraren 11. artikuluan onuradun izateko ezarritako gainerako baldintzak ere.

Idiazabalgo Udalak egingo dituen egiaztapenak onartzea, bai abenduaren 19ko 21/2003 Foru arauak, Gipuzkoako Toki erakundeetako Aurrekontuei buruzkoak, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiko legerian ezartzen diren finantza kontrolak ere, diruz lagundutako jarduerak aurrera eramanez eta gauzatzeari buruz eskatzen dioten informazio osagarri guztia emanez.

Idiazabalgo Udala jakinaren gainean jarriko duela beste herri administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berdineko beste diru laguntzaren bat ematen badie, edo diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada.

Idiazabalgo Udalaren lankidetzaren agertzea diruz lagundutako jarduerari buruz informazioa eman, publizitatea egin edo propaganda guztietan, bere irudi arauak zainduz beti ere. Halaber, euskaraz egingo da lehentasunez, eta gaztelania erabiltzen bada, inoiz ez da erabiliko euskara baino gehiago eta gehienez ere euskara erabiltzen den maiztasun berdinean erabiliko da. Generoaren ikuspegia ere kontuan hartuko da; eta, horrenbestez, ez da diskriminazio elementurik erabiliko ez hizkuntzan ez iruditan ez jardueretan.

Laugarrena.- Idiazabalgo Udalak diru laguntza ordainduko dio «**IDIAZABAL KIROL ELKARTEA**»ri: 2020ko urtarrilaren 22an ordainketa bakar baten bidez.

KUTXABANK IBAN ES47 2095 5044 3410 6084 0815



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0002

Bosgarrena. «IDIAZABAL KIROL ELKARTEA»k 2021eko urtarrilaren 31a baino lehen aurkeztu beharko du :

- Laguntza emateko baldintzak bete direla azaltzen duen jarduera memoria: zer jarduera egin diren eta zer emaitza lortu diren zehaztuta. Kirol praktikari dagokionez, memorian aipatuko da emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruz egindako jarduketak eta horien eragina.

- Egindako jardueren kostua zurrizteko memoria ekonomikoa, honako hauek bilduko dituena:

a) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazita.

b) Fakturak edo trafiko juridiko merkantilean pareko froga balio duten edo eraginkortasun administratiboa duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutakoak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duen dokumentua.

c) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua: zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Diru laguntza zurrizteko xedatutako epean ez bada aipatutako dokumentazioa aurkezten, 15 eguneko epean aurkez dezan eskatuko zaio elkarte onuradunari. Epe berriaren barruan egiaztapenak ez aurkezteak, seigarren klausulan aurreikusitako ondorioak ekarriko ditu.

Elkarte onuradunak lau urteko epean gorde behar ditu diruz lagundutako jarduera egin dela eta jasotako funtsak erabili direla egiaztatzen duten agiriak. Erakunde onuradunak egiaztagiria aurkezteko duen epea amaitzen denean hasiko da lau urteko beste epe hori.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten denean, organo emaileak dagozkion egiaztapenak egingo ditu Ondorioztatzen bada diruz lagundutako kostua onartutako diru laguntza baino txikiago dela, edo diru laguntza zurrizteko baldintzak ez direla osorik edo neurri batean bete, edo ez direla diru laguntzaren helburuak bete, onuradun erakundeari gorabehera horren berri emango zaio egindako egiaztapenaren emaitzekin batera eta seigarren klausulan aurreikusita dagoen bezala jokatu da.

Lerro bakoitzean sortutako zeharkako kosteak finantzatzeko emandako diru laguntzaren zenbatekoaren %8 dira. Zeharkako koste horiek ez dute eskatuko zuriketarik.

Seigarrena.- «IDIAZABAL KIROL ELKARTEA» honako betebeharrak izango ditu:

- Kirol arloko udal teknikariari egindako jardueren eta ekitaldien kontrol eta jarraipen lanak erraztea.
- Eskola-kirolarik, baldin eta GFako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiak prestatutako programetan sartuta ez badago, ez dela egingo bermatzea.
- Idiazabalgo Udalak deitzen dituen bileretara parte hartzea; horretarako ahalik eta parte hartzerik handiena egon dadin, beharrezko bide eta bitartekoak ezarriko dira.
- Bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea adierazpen guztietan; lehengo hizkuntza euskara izango da beti.
- Hizkeraren berdintasunezko erabilera bermatzea; emakumea diskriminatzen duten irudiak ekiditea eta berdintasunaren eta aniztasunaren irudia sustatzea.
- Kirolaren araudia (arlo bakoitzean) onartzea, Euskal Mendizale Federazioak onartutako erregelamenduek ezartzen dituzten leku, data, ibilbide eta kategoriei buruzko baldintzei eta



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0002

Eusko Jurlaritzak eta Idiazabalgo Udalak kirol probei eskatzen dituzten baimenak eskatuz eta osasun -, segurtasun- eta ingurumen-baldintzak betez.

- Kirolarien eta herritarren artean txapelketa eta lasterketei buruzko informazioa ematea eta zabaltzea, web orrietan, egunkarietan, telebistan, sare sozialetan, etab, Udalarekin koordinatuta.
- Antolakuntzan hondakinen birziklapenaren aldeko ekintzak gauzatzea, besteak beste, edalontzi eta tresna berrerabilgarriak zein hondakinak sailkatzeko ontzi egokiak erabiliz.
- Antolakuntzan mendia zein espazio eta instalakuntza publikoak modu egoki eta garbian erabiltzeko kanpaina egitea, baita udal-zerbitzuekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea ere, garbiketa-lanak ahalik eta lasterren hasteko eta bukatzeko.
- Elkarteak bere ekimenez antolatutako ekitaldietan eta jardunetan aseguru poliza eta Gurutze Gorria, DYA edo antzeko erakundeekin asistentzia-zerbitzua kontratatzea, behar denean, eta Eusko Jurlaritzak zein Idiazabalgo Udalak eskatzen dituzten ikuskizun publikoak antolatzeko baimenak eskatzea eta osasun -, segurtasun- eta ingurumen-baldintzak betetzea.
- Idiazabalgo Udalak antolatutako edozein ekintzatan lagundu beharko du, Udalak hala eskatzen duenean.

Zazpigarrena.- Elkarte onuradunak hitzarmen hau aldatzea eska dezake, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen. Halatan, eska dezake ezarritako epeak luzatzea, onartutako zenbatekoa murriztea, edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea, eta eskatutakoa onartua izango da baldin eta aurreikusi ezin diren gorabeherak gertatu badira edo beharrezkoa bada jardueraren burutzapen egokirako, betiere diru laguntzaren xedea edo helburua ez bada aldatu eta ez badio hirugarren bati kalterik egiten.

Idiazabalgo Udalak hitzarmen hau alda dezake erakunde onuradunari jakinarazi ondoren eta funtsak erabili aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan hartu ziren baldintzen aldaketek lortu nahi den interes publikoa eragotzi edo oztopatzen badute eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik egiten.

Elkarte onuradunak zurrizko agirian jakinarazten badu aldatu egin direla diru laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak, eta, aldaketa horiek direla eta, lehen adierazitakoaren arabera ebazpena aldatu egin zitekeela, baina aldaketa onartu aurreko baimen administratiboaren tramitea ez zela egin bere garaian Idiazabalgo Udalak aurkeztutako egiaztapena onartu ahal izango du nahiz eta horrek ez duen onuraduna salbuesten azaroaren 17ko Legearen 61.-63. artikuluen arabera dagozkion zigorretatik.

Zazpigarrena.- Onuradunak ez badu betetzen hitzarmen honetan eta gainontzeko araudi aplikagarrian ezarritako baldintzetakoren bat, laguntza hau jasotzeko eskubidea galduko du erabat edo neurri batean, eta jasotakoa itzuli beharko du osorik edo neurri batean, legezkiokkeen berandutza interesekin batera, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 40. atalak xedatutakoari jarraituz, eta erantzukizunak eskatuko zaizkio, aipatutako 38/2003 Legeak xedatutakoaren arabera. Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, indarrean dagoen diru laguntzei buruzko araudiarekin bat etorritik.

Lanaren bideragarritasunagatik edo izaeragatik, edo behar bezala justifikatutako beste arrazoiengatik ezingo balitz lana bukatu edo aurrera jarraitzea komeniko ez balitz, diru laguntza bukatutzat eman eta eten daiteke, bi aldean artean adostua.



Idiazabalgo Udala

Espedientea:
2020KHTZ0002

Zortzigarrena.- Hitzarmen honek sinatzen den egunetik hasi eta 2020ko abenduaren 31ra arte izango du eragina; eta edonola ere, hartutako konpromisoak erabat bete arte, hurrengo klausulan ezarritakoaren kaltetan gabe.

Bederatzigarrena.- Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia pasatu delako edo hitzarmena hautsi delako iraungiko da. Alderdietako batek bere gain harturiko konpromisoak betetzen ez baditu, besteak ahalmena izango du zehatz-mehatz bete ditzan eskatzeko, edota hitzarmena amaitutzat eman dadin eskatzeko. Halaber, diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolahi ere, diru laguntza hauez gain beste erakunde publiko nahiz pribatuengandik besteren bat jasoz gero, lankidetzaz hitzarmena aldatu edo iraungi daiteke. Deseginez gero, alderdiek amaieraren baldintzak eta gauzatze bidean dauden jardueren ordainketak zehaztuko dituzte.

Hamargarrena.- Hitzarmen hau izaera administratibokoa da.

Hitzarmena interpretatu edo betetzerakoan arazorik sortuz gero, administrazioarekiko auzibideko jurisdikzioak erabakiko ditu.

Hitzarmen honetan arautzen denaz gain, aplikatuko dira azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru laguntzen Legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.

Eta ados daudela frogatzeko, hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan ageri diren lekuan eta egunean.

IDIAZABALGO ALKATE UDALBURUA

Iñaki Alberdi Iparragirre

«IDIAZABAL KIROL ELKARTEA»

Matias Aranburu Elorza

Nire aurrean,

IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK

Isabel Fuertes Matxin

